

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014

GRADU AMAIERAKO LANA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FAMILIAREN BABESGABETASUNETIK INSTITUZIONALIZAZIOAREN BABESGABETASUNERA:

**Egoitza harreraren azterketa haurren eskubideetatik
abiatuta**

EGILEA: ARAIDA LEGARRETA-ETXEARRIA AURREKOETXEA

ZUZENDARIA: KARMELE ARTETXE SANCHEZ

LEIOAN, 2014KO IRAILAREN 5EAN

AURKIBIDEA

0. SARRERA	4
1. FAMILIA ETA BERE GARRANTZIA	6
1.1. Babesgabetasuna	7
2. EGOITZA HARRERA.....	8
2.1. Adin txikikoen egoitza harreraren ibilbidea.....	9
2.2. Egoitza harreretan gertatutako aldaketen orientabideak eta arriskuak	11
2.3. Egoitza harreraren abantailak eta desabantailak:	12
3. BABES SISTEMA, EDOZEIN ARRETAK EZ DU BALIO.....	14
4. HAURREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ITUNETAN DISKURTSO PROTEKZIONISTA NAGUSI	19
4.1. “Haurraren interes gorena” helduen baimenarekin.....	21
5. PROPOSAMENAK EDOTA IRTENBIDEAK.....	22
7. ONDORIOAK.....	26
8. BIBLIOGRAFIA.....	28

FAMILIAREN BABESGABETASUNETIK INSTITUZIONALIZAZIOAREN

BABESGABETASUNERA: Egoitza harreraren azterketa haurren eskubideetatik

ARAIDA LEGARRETA- ETXEBARRIA AURREKOETXEA
EHU-UPV

LABURPENA

Sekula ez dira gaur egun bezain ondo zainduak egon gure haurrak, eta interes handia dagoela haien tratu txarrak errotik erazteko erakusten saiatzen gara. Halere, babesgabetasun egoeran dauden haurrak asko dira oraindik tamalez. Babes sistemak, horri erantzuteko ardura izanik, arreta instituzionalaren aukera eskaintzen du besteak beste. Egoitza harreretan bizitzeak eta familiatik bananduta egoteak, haurrentzat kaltegarria dela agerian utzi nahi izan dugu. Babesa ematearen asmoa bada ere, eskubideen urraketa gertatzen da, haurrak objektu pasibotzat jotz. Beraz, lan honetan proposatutako irtenbide nagusiak honakoak dira: gai honi buruz ikerketa gehiagoren beharrezana, familian mantentzeko esku-hartzeak indartu, eta ondoren zentroetan baneraratutako arreta instituzionala murrizteko proposamenak abian jartzea.

Hitz-gakoak: babesgabetasuna, eskubideak, familia, haurtzarora, instituzionalizazioa

RESUMEN

Nunca ha estado la infancia tan bien cuidada como ahora, y aumenta el interés por extraer los malos tratos de raíz. Sin embargo y por desgracia todavía hay muchos niños y niñas que se encuentran en situaciones de desprotección. El Sistema de protección es responsable de ello y ofrece la institucionalización como solución para la protección. Teniendo en cuenta que los efectos negativos que supone vivir en un hogar de convivencia y además de la separación de la familia, bajo la excusa de proteger, interviene privándola de sus derechos, siendo considerados como objetos pasivos de intervención. Por lo tanto, las soluciones que se proponen en este trabajo son: la necesidad de investigar más sobre el tema, la necesidad de reforzar más las intervenciones familiares, y la propuesta de la desinstitucionalización.

Palabras claves: desprotección, derechos, familia, infancia, institucionalización

ABSTRACT

Childhood has never been so well taken care of as now, along with an increased interest to remove physical abuse from its roots. However and unfortunately there are still many children who are in situations of vulnerability. The protection system is responsible for it and offers institutionalization as a solution for protection. Given that the negative effects of living in a home and taking into account the separation of the family, under the excuse of protecting, it intervenes depriving itself of its rights and are considered as passive objects of intervention. Therefore, the solutions proposed in this paper are: the need for more research on the subject, the need to further strengthen family interventions, and the proposal of deinstitutionalization.

Keywords: lack of protection, rights, family, childhood, institutionalization

0. SARRERA

Gizarte Hezkuntzako Gradu honi dagokion Practicum osoa Etxebizitza Funtzional batean burutu nuen. Practicumean zehar sentimendu, ondorio eta hausnarketa desberdinak azaleratzen joan dira. Hasierako beldurrak, zalantzak, nola moldatuko ote garen, dena berria den heinean, gure barrukoa ere berritzen ari den sententzia, beti ere distantzia bat mantenduz, behaketan oinarritzen dena gehien bat. Practicuma aurrera zihoan heinean bestelako ikaskuntzak eta hausnarketak barneratzen hasia nintzen. Baina azkenengo Practicumean bizitako sentimenduak izan dira batez ere GRALean esleitu zaidan gaia: "haurren eskubideak" lantzeko klabea. Gai zabala, konplexua den arren, zentro hauetan barneratuta dauden adin txikikoak pairatzen dituzten egoerarekin uztartzeko parada izan nuen.

Izan ere, adin txikikoekin elkar partekatutako momentu asko bizi izan ditut bertan, beraiena ez den beste etxe batean gurasoetatik at bizitzea haiengan sortutako sufrimendu eta oinazearekin bat egiteko gaitasuna barru barruraino barneratu izan dut. Horrela, nire buru barnean ideiak, zalantzak, hausnarketak pil-pilean, zerbaitek ez zuela ondo funtzionatzen sentitzen hasi nintzen.

Beraz, informazioa bilatzen hasi nintzen eta hain zuzen ere adin txikikoen instituzionalizazioari buruzko autore desberdinen kritikak aurkitzen nituen heinean gero eta konbentzituago nengoen nire buruan bueltaka zebilen horrekin. Horregatik haurren eskubideak oinarri hartuta, zentro edota etxebizitzetan barneratzearen aukera horren kontrako analisi kritiko bat egitera ausartu naiz. Eta Gizarte Hezitzaile izango naizen heinean, eginbeharretariko bat beste irtenbide batzuk bilatzea eta proposatzea litzateke. Lan honetan batzuk aipatuko ditut, eztabaidarako eta ikerketarako atea zabalik utziz.

Oro har, identifikatutako ideia honekin adierazi nahi dudana babesgabetasun egoera batean dauden adin txikiko hauen eskubideak haien familietan urratuta dauden bezala, instituzio hauetan barneratzerakoan bestelako eskubide batzuk kolokan geratzen direla, tratu txar emozionalak edo psikikoak pizten direlarik. Zergatik jarraitzen dugu adin txikiko hauek zentro hauetan barneratzen, ez bada irtenbiderik egokiena? Lan honekin adierazi nahi dudana zera da, ez dela aukerarik eta egokiena adin txikiko

hauek zentro hauetan sartzea, eta bestelako irtenbide batzuek aurkitzen saiatu beharko ginatekeela.

Haatik, familiak duen garrantzia kontutan hartu eta babesgabetasun egoerak deskribatuko ditut. Egoera horretan dauden haurrak egoitzetan instituzionalizatuak izaten dira, babes sistemaren ardura den heinean. Hala eta guztiz ere, egoitza harreraren kontzeptuaz hitz egingo dut, haurren eragiten duten kalteaz jabetzeko. Eta honekin lotuta dagoen babes sistemak dituen akatsak erakutsi ere. Haurren interes gorena kontutan hartzen badugu, herri honetan haurren eskubideen inguruan erabiltzen den diskurtso protekzionista aipatzen dut, haurra subjektu pasibotzat jotz. Azkenik, irtenbide edo proposamen batzuek aipatuz eta ateratako ondorioekin bukatzen da lan hau. Edozein arretak balio ez duen bezala, babesgabetasun egoeran dauden eta arreta instituzionala jasotzen duten adin txikiko hauek behar bezala babestuak ez daudela uste dut, beraz, haien eskubideak urratuak izaten jarraitzen dira.

Helburuei erreparatuz:

- Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoak aldi baterako egoitza harreretan bizitzea aukera egokia den aztertzea.
- Gurasoen babesgabetasun egoeraren aurrean, haietatik banatzea eratorri daitezkeen babesgabetasun eta eskubide urraketak detektatzea.
- Adin txikiko batentzat familiak duen garrantzia azpimarratzea edota aldi berean familiatik aldentzeak ekarri lekion kalteaz jabetzea.
- Beste irtenbide batzuk proposatzea eta ikerketarako ateak irekita uztea

Helburu hauek lortzeko autore desberdinen iritziak kontutan hartu ditut, beraz, bibliografian oinarritutako azterketa kualitatiboa erabili dut eta analisi kritiko bat egitera ausartu naiz.

1. FAMILIA ETA BERE GARRANTZIA

Haurra jaiotzerakoan babesik gabe aurkitzen da, heldu baten laguntza eta beharra du bizirauteko. Hala ere, pertzepzio eta ikasteko gaitasun handiak izaten ditu eta gizarteratzeko berezko aurretiko jarrerarekin jaiotzen da. Alde batetik, haurrak sozial bezala katalogatu daitezkeen estimuluen aurrean lehentasuna erakusten du, eta bestetik, haurrak bere espeziekoekin lotura afektiboak sortzeko lehentasun beharrak sentiarazten duela ematen du. Haurra beraz, jaiotzetik gizarte estimuluen bilatzaile sutsua izango da. Eta lotura hauek oinarri sozial eta afektiboak izango dira, haurtzaro eta nerabezaroan zehar ezaguerak eta gaitasunak garatuz heldua izan arte. Prozesu honi, sozializazio prozesua deritzogu.

Sozializazio prozesu honetan familiak dauka lehentasunezko garrantzia, izan ere, lehenengo sozializazioa familiaren bitartez garatzen eta eskuratzen baita, eta bigarrena berriz hezkuntzaz arduratzen diren instituzioen bitartez litzateke.

Gaur egun, globalizazioa dela-eta, gizartean gertatzen diren aldaketak direla-eta, familiak ere aldaketak sufritzen ari da eta familia babesteko eta sozializatzeko funtzioa nabarmenki murriztu egin dela dio Minuchin-ek (1979). Familia etengabeko mugimenduan dabilen sistema irekia da eta familiaren funtzioak bi helbururi erantzuten die: bata, barnekoa; famili kideen babes psikosoziala, eta bestea kanpokoak; kulturaren ezagutza eta horren transmisioa. Beraz, Minuchin-en arabera, helburu hauek kontutan hartuta familiak duen lau funtzio hauetaz hitz egingo genuke: funtzio bio soziala, funtzio kulturala, sozializatzen laguntzen duen funtzioa eta funtzio ekonomikoa batik bat. Hortaz gainera, teoria ekologikoari jarraituz, pertsona edo familia kide bakoitzaren garapena bere testuinguruan ulertu behar da eta horretarako bost sistemak bereizi zituen Bronfenbrennerrek (1979). Belsky (1980), Bronfenbrenner-en eredu ekologikoa oinarri bezala hartu zuen (mikrosistema, ekosistema eta makrosistema) eta Belsky-k uste du, haurren tratu txarra maila ekologiko desberdinen (banakakoa, familiarra eta ingurunekoa) interakziozko prozesu batean gertatzen dela eta inguruneak, zein haur eta hezitzailearen ezaugarriek, tratu txarraren genesian era dinamiko eta interaktibo batean jarduten dutela. Familian eragiten duten sistema hauek, oreka batean mantentzea litzateke egokia familiarentzat, babesa ziurtatzeko, hau da, familiaren errekurtsoen eta aurre egin

behar diren bizi egoerek produzitutako estres-mailaren artean balantze egokia ematen denean (Belsky, 1980).

1.1. Babesgabetasuna

Argi geratu zaigu beraz, familiak babes funtzioan duen garrantzia, babesa kolokan geratzen den momentuan babesgabetasun egoera bat agertzen da. Babesa ematea testuinguru egokietan bizitzea ahalbidetzea da.

Haurrak beharrezkoak diren oinarrizko zaintzak hartzen ez dituztenean, tratu txarrak jasotzen dituztenean, edota eskubideen urraketa gertatzen denean, esaten dugu haurra babesgabe dagoela. Gainera, Funesen (2008) ustez, egoera hauetatik asko oraindik ere ezkutuan agertzen dira, baliabide ekonomiko zein kulturalak dituzten familietan gertatzen diren tratu txar psikikoak esku hartu gabe daude eta.

Haurtzarora, estimuluak jaso eta hezkuntza ematen den testuinguru zehatz batzuetan hezteko posiblea denean, esango dugu inguru egokia dela. Bizitzarako baliabide egokiak sortuz eta atseginak diren esperientziak eragingo duten ekintzak, haurtzarora posiblea izatea eragingo dute. Haurren babeserako politikak, beraien bizitzak arriskutik at egon daitezen ziurtatuko dute, baita egoera osasuntsu egoki baten jarraipena bermatuko dutenak ere. Beraz, Funesek dio (2008: 145) babestea, haurrek haurtzarora izateko ekitea esan nahi du, eta haurtzarora posiblea izateko testuinguru egokiak sortu eta mantentzearen garrantzia azpimarratzen du.

Babesgabetasuna hiru egoera hauek gertatzen direnean ematen da:

1. Oinarrizko testuinguruak (familia, eskola e.a), haurraren garapen egokia sortzeko gai ez direnean. Kasu honetan, haurtzaroaren arretarako zerbitzu desberdinek babesa emango dute.
2. Ezinezkoa da garapen egoki bat gertatzea, nahiz eta inguru hauetan biziraupena ziurtatuta egon, ez bada hezkuntza testuingururik. Bere hurbilekoek ematen ez diotena bete eta hobetu beharko da. Baina baita ere, agente desberdinei (profesional edota gurasoei) eta instituzioei gaitasunak eman beharko zaie estimulatu eta hezi dezaten.

3. Babesgabetasuna nahiko argia izaten da inguruak garapenaren aurkako bidean estimulatzeko duenean, era suntsitzailean eragiten duenean, haurtzarora arriskuan jartzen duenean. Orduan, zaintzeko ardura zutenak ordezkatuak izaten dira, egoera larriak izaten direlako eta kasu horietan haurtzaroaren babeserako sistemak esku hartzen du.

Hala ere, eta gogotsu azpimarratu behar da, babesgabetasuna hiru egoera desberdinetan ematen dela, ez bakarrik azkenengoan.

Haurtzaroaren babeserako arreta Babes Sistemak kudeatzen du baina hirugarren egoera honetan jarduteko ahalmena du bakarrik. Sistema honek ahaztu egiten du haurra babesteko erarik eta garrantzitsuena haurra testuinguru egokietan bizitzeko ahalegina egin behar dela.

Adin txikikoa familiarik banandua izan behar duenean beharrezko babesa hartzen ez duelako, orain dela urte batzuk arte ez zegoen arreta instituzionala baino beste baliabiderik. Honek gabezia psikologiko eta afektiboak suposatzen du adin txikikoarentzat. Orain ostera, badago hortaz aparte beste aukera bat, Familia Harrerak hain zuzen ere, familiak eskaini ahal duen garapen psikoafektiboa askoz ere handiagoa baita. Azken urteotan harrera familiak gero eta gehiago diren arren, askoz ere gehiago dira egoitza harreretan bizi diren adin txikikoak. Izan ere, Espainia Estatuan 30.000 haur dira haur instituzionalizatuak, harrera familietan aldiz, 17.000¹.

2. EGOITZA HARRERA

Egoitza Harrera, euren familiengandik aldi baterako banandu dituzten adingabekoei bizikidetzako aukera bat ematen dien baliabide bat da. Hau da, Egoitza batean hartzeak bere beharrezkoetarako bizikidetzako aukera egokia ematen dio adin txikikoari, aldi baterako familiengandik banandu direnean²

¹ A. Rafael Linaresen txostenetik ateratako datuak: "La Institucionalización y la acogida en familia". http://www.paidopsiquiatria.cat/archivos/Texto_acogida.pdf (2014/09/02)

² Ikus "Egoitza harrera" bizkaia.net http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=1784&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=3&codpath_biz=3|236|1784 (2014/09/02)

Zentro horiek adin txikikoaren garapen osoaren erantzukizuna hartu beharko dute, beharrian biologiko, afektibo eta sozialak betetzen direla bermatuko dute, segurtasun eta babeseko giroan. Egoitzak oinarrizko beharrianak betetzen direla bermatuko du: osasun arreta; beharrian materialak; eskolatzea; eskolan ikasitakoa sendotzea eta zuzentzea; bere adineko haurren esperientzia arruntak izatea.

Egoitzetako Harrerari dagokionez EAEn zerbitzu eredu bakarra ez dago, nahiz eta hiru herrialde historikoen artean antzekotasunak egon jarduketa eta ereduei dagokienean. Ikuspegi konparatibo batetik azpimarratzekoa da Bizkaian eta Gipuzkoan Egoitzetako Harrera Foru Aldundien eskumena dela, baina ez horrela Araban. Azken herrialde honetan esku hartze honen eskumena Foru Aldundiak (premiadizko bi harrera zentro ditu —Hazaldi eta Bosko etxea—, bi berezko etxe —Geroa eta Sansoheta— eta beste hiru erakundeekin hitzartuak) eta Gasteizko Udaletxeak banatzen dute (HAURBABESA, 2009).

Erakunde publikoak adin txikikoa egoitza batean hartzea erabakitzen duenean, familiako bizimoduaren esperientzia izan behar duela kontuan hartuta, batez ere lehen haurtzaroan, adin txikikoa egoitzan ahalik eta denborarik gutxien egoteko ahalegina egingo du, haurraren intereserako egokia denean izan ezik.

Zentro guztiek Zentroko Hezkuntza Proiektua egingo dute eta bertan adieraziko dira gizarte eta hezkuntzako hastapen globalak, helburuak, jarduerak, metodologia, baliabideak eta ebaluaziorako adierazleak. Era berean, barruko antolaketa eta funtzionamendurako araudia izango du, adin txikiko guztien eskura egongo dena.

2.1. Adin txikikoen egoitza harreraren ibilbidea

Aspaldidanik, egoitza instituzionalak izan dira haurtzaroaren beharrianen egoeren ohiko erantzuna. Egoitza hauek hospizio, umezurztegi, erreformatorio edo holakoez ezagutzen ditugunak izan dira, non haurrak komunitatetik konfinatuak edota bananduak izaten ziren. XX. mende bukaera arte, haurrak egoitza hauetan sartu izan dira eta familietatik bananduak, gurasoek ematen zizkien baino arreta hobea eskainiko zitelakoan alegia. Beraz, haurtzaroaren babesa bermatzeko, egoitzetan barneratzea ohikoa, lehenetsuneko eta gehienetan baliabide bakarra izaten zen. Izan ere, ekintza

eta ardura hau hartzen duten instituzioentzako oso eroso dela esan dezakegu, arazolari berehalako erantzuna ematea ahalbidetzen duen ustetan, eta are gehiago, arazoa konponduta geratu den inpresioa sortuz gainera (Vélaz de Medrano, 2009). Baina ez da haurrarentzako arrisku egoera prebenitzen ezta kausetan esku hartzen ere.

Zorionez, babes eredu honek bai soziologiatik, pedagogiatik eta baita psikologiatik ere oso kritika zorrotzak jasan izan ditu, ondorioz, XX. mendearen azken hamarkadetatik aurrera instituzioen erabateko eraldaketa nabaritu izan dugu, baita egoitza harreraren berkontzeptualizazioa ere, haurtzaroaren babeserako komunitate batek duen baliabideen artean elementu bat gehiago litzateke.

70. hamarkadan hasi ziren desagertzen abandonu egoeran aurkitzen ziren haurrei zuzenduriko erakunde handiak (umezurtz-etxeak, sehaska-etxeak, erreforma zentroak e.a) eta hauen ordeztu, hainbat elkartetan, enpresek edo ordena erlijiosoek kudeaturiko egoitza txikiagoak sortuz joan ziren, adingabekoei jarraipen pertsonalizatuagoa eskaini asmotan. Egoitza hauek profesionalizatuz eta espezializatuz joan dira urteetan zehar, geroz eta bereziagoak diren egoera problematikoei aurre egin ahal izateko. Epe labur baterako edo epe luzeago baterako familiarengandik bananduak izan diren edota “de facto” bananduak dauden (bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak) haur eta nerabeei beraien beharren arabera elkarbitza eskaintzea da zentro hauen helburua. Gaur egun zerbitzu hauek ahalik eta gutxien erabiltzeko joera dago, nahiz eta kasu askotan beharrezko baliabideetat jotzen diren. Aldiz, familia harrera bezalako babes baliabideak, adopzioak eta jatorrizko familian mantentzeko programak geroz eta indar gehiago hartzen ari dira EAEn ere. Hala ere, Egoitzetako Harrerak gaur egun babeserako baliabideen artean, pisu esanguratsua izaten jarraitzen du. (HAURBABESA Lanbide Taldea, 2009).

Gaur egun eskuragarri dauzkagu baliabide desberdinak: familientzako laguntza programak, harrera egiteko etxebizitzak edota tratamendu bereziak eskaintzen dituzten egoitzek. Beraz, familien beharrezkoak zeintzuk diren kontutan hartuta, esku hartzea moldatua izateko aukerak eskaintzen dituzte.

Hala ere, Jaume Funesen (2008) ustetan, praktika sozialek eta administrazioek haurren beharrezkoen eta eskubideen ematen dizkieten erantzunak zaharkituta daudela dio, oso azkar aldatzen ari den gizarte konplexu honi ez diela behar bezala erantzuten uste du.

2.2. Egoitza harreretan gertatutako aldaketan orientabideak eta arriskuak

Aipatu ditugun arazo historikoak direla eta, egoitza harrerak pertzepzio negatibo honi aurre egin behar izan dio, profesionalen iritziz kontuan hartzen den azken baliabidea izaten delako, beste baliabide edo aukerarik ez dagoenean (Velaz de Medrano, 2009)

Zorionez, mendearen azken hamarkadetan instituzio hauek aldaketa batzuk jaso dituzte eta aldi berean zalantza jarri zen ustez jasotzen zuten deskalifikazioa.

Aldaketaren prozesu honetan hartutako orientabideen artean; instituzioen masifikazioa, honek guneen aldakuntza, elkarbizitzarako guneen murrizketa eta haur eta hezitzaileen arteko ratio egokien ezarketa; haurren bizimoduaren normalizazioa eta giza eta eskola inguruaren integrazioa; eta taldeen profesionalizazioa aipagarrienak dira.

“Políticas de infancia del Consejo de Europa” batzar internazionalan, instituzio batean bizi diren haurren eskubideak nahiz eta gogotsu saiatu, (Velaz de Medrano, 2009) oraindik ere ezarri gabe zeudela ondorioztatu zuten:

- Instituzioa tamaina txikikoa izan beharko luke edota elkarbizitzarako talde murrizak egotea bermatu beharko ziren: nahiz eta taldeak murriztu diren, egun egoitza harreretan hamar adin txikiko bizi dira eta txanda bakoitzean hezitzaile bat edo bi gehienez lan egiten dute.
- Arazoa gertatu den inguruetik gertu egon beharko luke eta familiarekin eta ingurunearekin kontaktua mantendu: normalean beste herri batera eramaten dira, eskola, inguru, lagun, mediku aldaketak suposatzen duelarik.

- Egoitzan barneratzea behin behinekoa izan beharko luke: izan ere, kasu asko daude adin txikikoak behin betiko edo behintzat adin txikia pasatu arte bertan bizi direnak
- Baliabide prebentiboak bultzatu, barneratzeari irtenbideak bilatu eta familientzako laguntza programak eskaini, errekuera ezinak diren egoerak ekiditeko: barneratzearen beste irtenbideak oso astiro doazela ematen du, oraindik ere errekuera ezinak diren kasuak daudelako.
- Eredu hezitzaileak bakarrik landu behar dira egoitzetan: eredu demokratikoari indarra eman eta heziketa autoritarioa baztertu behingoz (zigor eta obligazio gehiegi, eta, konfiantza eta haurraren iritzia eta sentimenduei erreparatu)

Bestaldetik, haur batentzako holako egoitza batean egoteak dakarren arriskuen artean hauek:

Beste haur batzuekin hezitzailearen arreta elkar banatu eta arreta hori lortzeko lehiatu behar dute; famili identitatearen eta autoestimu pertsonalaren galera izaten da; inguru pertsonal eta intimitatearen galera ere; indibidualizaziorako zailtasunak; gain-estimulazioa edo azpi-estimulazioa; banakako aukerak egiteko zailtasunak izaten dira; jabetzaren sentimendutik urruntzea; heldu askorekin harremanak; tratu txarrak jasotzeko aukerak; erabakiak hartzeko zailtasunak, eta abar.

2.3. Egoitza harreraren abantailak eta desabantailak:

Haurra bere etxean mantentzea edo aldiz, egoitza batera eramateko erabakia, egoera familiarrarekin esku hartzen den bitartean, babeserako oinarrizko baliabidea litzateke. Maiz, haurra bere etxetik ateratzeko erabakiaren kontrako posizioak defendatu dira, batez ere bere garapenerako kaltegarria delako ustetan, nahiz eta babestutako inguru batean egoteak ere bere garapenerako positiboa dela uste izan.

Izan ere, profesional taldeak kontzientea izan behar du haurrarentzako holako egoitza batean sartzeak suposatzen duen abantailak eta desabantailak (Velaz de Medrano, 2009);

Abantailen artean; tratu txarren aurrean berehalako segurtasuna suposatzen du; gurasoen krisi eta estresaren aurrean aringarri bat izan daiteke; arazoan murgilduta dauden partaide guztientzako lasaitasuna sortu daiteke; gertakariak edo arazoak egoeraren seriotasuna eta arazo familiarraren larritasuna erakusten du; autoritate judizial eta administratiboen inplikazioa; familiak arazoak gainditzeko terapia egiteko posibilitatea ematen du e.a.

Desabantailen artean berriz: esku hartzearen erarik eta gogorrenetarikoa litzateke; ekonomikoki kostu handiena suposatzen duena izaten da; haurrarentzat biktimizazio bikoitza suposatzen du; maiz adin txikikoa errudun sentitzea dakar eta bere familiaren banaketa edo apurketa horren arduraduna izatearen sentimenduak agertzen zaizkio; adin txikietan emozioen arrotzearen arriskua; adin txikiaren egonkortasuna sustatzen duen planifikazio egokirik gabe, haurra desorekatuta sentituko da; etorkizunean apurketak edo banaketak sortzeko aukera handitzen dira; esku-hartzeak porrot egiten badu, haurraren eta familiaren zaugarritasuna handiagotzen da.

Adin txikikoaren aldi baterako urruntze honek, bizitzen ari diren egoera birplanteatzeko edo gurasoek behar duten tratamendua hartzea ahalbidetzen du. Baita, guraso edo tutoreek egoeraren larritasuna ezeztatu edota kontzienteak ez direnean, banaketa honek begiak irekitzeko eta egoeraren seriotasunaz ohartzeko balio izaten du, eta hobetzeko motibazioa pizteko alegia.

Hala eta guztiz ere, aipatu behar da, esperientzia batetik, eta datuak bestetik, esaten digutela haurraren kanporatzeak, egoitza batean sartzeak edota beste familia batean kokatzearen erabakia ez dagoela ikertuta, beraz, ez dago profesionalen eta ikerlarien arteko akordio bat, non arreta hobe bat bermatuta geratuko den.

Zoritxarrez, adin txikikoaren urruntzea eta instituzio batean sartzearen erabakia maiz, urgentziazko eta krisi egoeratan hartzen den erabakia izaten da. Neurriak presaka eta ondo aztertu gabe hartu behar direnean haurrarentzako gogorragoa izaten da.

Helduok ematen ditugun erantzunak egokiak ez direnean, haurren egoera konplikatu egiten da eta azkenean tratu txar instituzionala jasotzeko arriskua dute. Ez bakarrik ez ditugula egoki babesten baizik eta gainera haien eskubideak urratzen dizkiegu, gure

erantzun eta ekintzekin haien errealitatea eta haur mundua ez ditugulako kontuan hartzen.

Kasu askotan konpondu daitezkeen zailtasunak izaten dira, batez ere, profesional batzuen lan egokiak haurra aurreneko tokian jartzen dutenek hain zuzen ere.

3. BABES SISTEMA, EDOZEIN ARRETAK EZ DU BALIO

Arestian aipatu dugun bezala babesgabetasun egoera bat ematen denean Babes Sistemak esku hartzen du. Haur eta gazteen zaintza tradizionalki Foru Aldundien eta Udalerrietako Korporazioen esku egon izan da, Gizarte Zerbitzuak sortu arte. Gizarte Zerbitzuak Eskubide Estatuari, gizarte bazterketaren tratamenduari eta haurren eskubideei lotuta sortu ziren eta hauen sorrerak eta garapenak administrazio eredu ezberdinak ekarri zituzten (HAURBABESA LANBIDE, 2009)

Funesek (2008) aipatzen du Estatuan babes Sistema honek ez duela behar bezala funtzionatzen edota tamalgarria dela. Haurtzaroaren beharrezan eta errealitate berrien egokitzapenerako zailtasunak erakusten ditu sistema honek, bai eta, norabide eta arauen egonkortasun eta koherentzi faltaren ondorioz oso babes eskaseko sistema bat dela uste du. Aipatzea gogorra den arren, eta nahiz eta sistema barruan lanean diharduten primerako profesional askoren esfortzua agerian geratu, sistemaren praktika errealean parte handi bat tratu txar instituzionala bezalaxe definitu behar dugunaren barne daude (Funes, 2008: 20)

Edozein eratako arretak ez du balio

Aspaldidanik jakin badakigu haur bat ondo zainduta egotea ez dela nahikoa, maitasuna bitaminak baino askoz ere garrantzitsuagoa dela badakigu (Funes, 2008). Badakigu baita ere, haurtzaroa zaintzeko ez duela edozein instituziok balio, beraz, egoitza instituzionalak ez direla aukera egokiena haientzat. Haurren babesgabetasun desberdinen eraginei buruzko informazioa nabari dagoenaren sentsazioa ematen du, baina aldiz, oso gutxi ikertu, baloratu egiten da esku hartzearen eraginei buruz, haien bizipenei eta beharrezaneiei ematen zaien erantzuna eta eragina ez ditugu asko

ezagutzen. Babestu egin nahi dugu eta egiten dugu baina ez gara ohartzen nola babesten dugun. Hausnartu beharko genuke gure erantzunak eta irtenbideak nolako eragina suposatzen duen adin txikikoarentzat.

Babesarekin haur hauen sufrimendua eta oinazearekin bukatzea saiatu beharko genuke. Ondo egiten dugunean haien bizitzetan zer gertatzen den ulertzeko parada ematen digu zeintzuk diren arrazoiak maite dituztenak maitatu ezin izatea edo zergatik ez duten maitatu nahi ulertaraztea. Egoera berri honetan norbait konfiantzazkoa behar dute haien inguruan bakardadeari aurre egiten lagunduko diena. Eta bakardade berri honetan, gure erantzuna zentro batean sartzerakoan, bizitza komun bat, homogenea, non bere lehentasunezko zeregina instituzio honetara egokitzea izango dena. Batzuetan sentitzen dute biziraupena dela etorkizun bakarra (Funes, 2008).

Badakigu babes guztiek ez dutela babesten eta ezta ematen den arreta guztiak balio ere. Badakigu, baina ez du ematen, erabakiak hartzen dutenek dakitenik. Haur gehiegi dira sistemarentzat espedienteak balira bezala tratatuak direnak.

Harrera familietan hainbat urteetan zehar egon diren adin txikikoak, familia horrekin apurtzera behartuak izan dira, tramite burokratikoak direla eta. Edo, 18 urteko gazteek haurtzaro osoan zaindu ezin izan duen familiarekin bueltatu beharra izan dute, eta norbaitek lagundu izan balu bere familiarekin bizitzeko aukera izango lukeen (zaintzako gorabeherak, desorekei aurre egiten ...). Baina haiengandik bananduak izan ziren baliabide sozial eta heziketa baliabiderik ez zutelako izan momentu hartan. Beste kasu batzuetan nerabe asko psikiatrikoetan urteetan zehar ingresatuta diraute, inor prest ez dagoelako zaintzeko edota ezin dutelako.

Babes sistemako arduradunengana hurbiltzen garenean, oso ondo lan egiten dutenekin egiten dugu topo, baina min handia ere aurkitzen dugu instituzioetatik etorritako funtzionamendu kaskarra dela eta. Ardura eta antolaketa politikoetan gertatzen diren aldaketa handiak ere eragin negatiboak sortzen dute haurrengan. Beraz, haurtzaroaren arreta sistema honek, batez ere babesgabatasun egoeran daudenei erantzuteko, zailtasun batzuk dituela esan dezakegu (Funes, 2008).

Haatik, nahiz eta haurtzaroaren arreta sisteman jarduten duten profesionalen intentzioak onak izan, hurrengo ezaugarriak sarri ematen dira:

- Normalean erabiltzen diren esfortzu zein baliabideak, adin txikikoaren egoera kaskarra deskribatzeko izaten dira. Aldiz, esku hartze egoki baterako proposamenak, laguntza, zein tratamendurakoak falta izaten dira. Adibidez, tratu txar bat ondo definitzen da baina gero, oso haur gutxik jasotzen dute beharrezkoa eta egokia den tratamendua egoera hura gainditzeko, eta ez da nahikoa izango familian gertatutako hori, berriz ekiditea, terapia denbora nahikoak behar izaten dute zauriak sendatzeko.
- Babes sistema honek adin txikikoa inguru familiarretik bananduta bakarrik lagundu dezakedala ematen du. Sistemak ahaztu egiten du haurren eskubideen lehenengo neurria, gurasoei laguntzea dela haien haurra zaintzen. Hori izango zen lehenengo eta behin baloratu beharko zena. Baliabide eskasena da gehien behar dena: programa eta zerbitzu desberdinak amatasuna eta aitatasuna lortzen lagunduko dutenak. Maiz, guraso horiek baliabide eta zerbitzu sozial, heziketa zein osasunezkoetatik pasatzen dira baina ez dute laguntza eraginkorrik izaten.
- Banaketaren eredu honek haurra biktima bikoitza bihurtzen du gainera. Batetik, bere inguruan sufritu behar duena, bestetik, banaketak berak dakarren ondorioagatik. Egoera horren aurrean hartu beharreko neurria: jarraipen pertsonalizatu bat eskaini, banakako laguntza eta hurbileko bat, bere inguruarekin apurtu eta banatu gabe. Gainera ezin dugu ahaztu egoera aldakorrak izaten direla gehienetan, beraz, kasu asko laguntzarekin eta konfiantzarekin hobetu litezkeen kasuak lirateke.
- Haurra aztertzen da, bere zailtasun pertsonalak, bere arriskuak, traumak. Ahaztu egiten zaigu testuinguru konkretu baten dagoen haurra dela, bizi duen egoerak sortzen duela arriskua, bere familiaren bizi baldintzak, bere etxebizitzak, bere auzoa (gogoratu Belsky eta Bronfenbrennerren eredu ekologikoa). Lehenengo eta urgentziazko pausua eta babesa egoera horiek hobetzea litzateke.

- Internamendua da gehien erabiltzen den baliabidea. Egun, babes hitzak zentroetan barneratzea esan nahi du, familiarik banatzea eta zentro batean barneratzea, horrek dakarren zailtasun eta ondorioak kontutan hartu gabe.
- Haur hauek esku batetik bestera doaz sarritan. Familiarik, instituziora, zentro batetik, bestera, gero beste familia batera, baina inoiz ez dakite nora joan azalpenen baten bila. Administrazioaren zaintzaperas pasatu ziren babesgabetasun egoera batean egoteagatik, eta orain lehen bezain biziki abandonatuak jarraitzen dute, nahiz eta egunero norbaitegatik zainduak izan. Zituzten lotura eskasak galtzen doaz, eta orain, maiz profesional berri bat ezagutu behar dute, harremanak egin, ohitu, konfiantza hartu eta berriro abandonatua izan. Egoera hau sarri ematen da, profesional askoren aldaketa gertatzen delako zentro hauetan.
- Erabaki administratiboek oso astiro doaz, eta batzuetan era oso zorrotz batean jarduten dira. Egoera asko prozesu administratibo zein judizialez betetzen dira, denbora aurrera doa eta prozeduren formalismoa adin txikikoaren benetako beharrezan aurretik jartzen da. Haur batek daukan denbora, ez dela administrazioak ezta justiziak erabil dezaken denbora berdina, ezta antzekoa ere. Ez da legezkoa adibidez, haurtxo bat hogeita bi hilez zentro batean edukitzea, aurretik dakigunean ziurtasun osoz, haur hori adopzioan hartuko dutela. Edota kasu bat hileak eta urteak aztertzen dihardute, azkenean zentro batera bidalia izateko, zentro horretan lekurik ez izateko gainera. Erabakiak hartzerakoan batek beste bateri pasatzen dio pilota, eta inork erabakiak hartzerik ez. Sistema honek ez du ebaluaketa sakonik egiten, bere kargu dauden haurrekin zer geratzen den jakin behar da. Prozesuaren ebaluaketa bat, arreta ematen hasi zirenekoak, hartu ziren erabakiak, eta horiek egokiak ziren edota garaiz hartutako erabakiak izan ziren, noiz eta nola abandonatu behar duten sistema. Ez da askorik jakiten zer den haiekin egiten dena, zertarako balio izan den hor egotea, edo beste era bateko arreta ematea hobea litzatekeen.
- Zerbait larria gertatzen denean, arretan arazo larri bat, batzuetan berez etortzen dena, ohikoa izaten da arduradunak bilatzea edo ezkutatzea. Eta egokiagoa litzateke egoera horietan zer eta nola gertatu den sakonki aztertu

berriz gertatu ez dadin. Holako egoerak gertatzen direnean sistema bera izan behar da arduraduna babeserako arreta hobea bermatuz.

Adibide gisa, Hego Ameriketaraino abiatzen bagara, Argentinara hain zuzen ere, pobreziaren handitzearen testuinguru hartan, haur pilo bat zaugarritasun psikosozial egoera batean geratu ziren. Argentinan egoera honen aurrean instituzionalizazioa erabiltzen da babes eredu bezala (Di Ioro, 2010). Haurren eskubideen babeserako ezarritako legediak hobetuz doazen heinean Estatuak hartu zuen gai honetan esku hartzeko zeregina, beraz ama edo aitaren paperaren itxura hartu zuen, tutoretza bere gain hartuz. Gaur egun, "Ley de Protección Integral" k tutoretza eredu horretatik ateratzeko printzipioak bereganatzen ditu, 1989ko Haurren Eskubideen Konbentzioari hurbilduz. Beste batzuen artean, politiken deszentralizazioa agertzen da, eta Estatuari ematen dio esku hartzeko aukera haurraren interes gorena jokoan dagoela kontsideratua bada. Lege horren 33.artikuluak dio, babes integral ereduak inoiz ez duela askatasunari uko egingo. Hala ere, urte batzuk pasa direnean, herri horretan 20.000 haur eta nerabe instituzionalizatuta agertzen dira oraindik, UNICEFko azken txostenak adierazten duen arabera. Honek esan nahi du haien askatasunari uko egiten dietela, eta ez lege penalarekin konfliktorik dutelako, baizik eta delituen biktimak izateagatik.

Argentinan Estatuak finantzatuak diren etxebizitzak inguru egonkor bat eskaintzeko aukera ematen dute. Hau da, neurri berezi bat da, non urratutako haur hauen eskubideak konpontzeko aukera ematen duten. Hala ere, anbigutasun eta zuhurtzian ezkututzen den mezua da. Instituzionalizazioak denboran zehar limiterik gabeko neurri batean eraldatzen da, eta luzatzen da jatorritik etorritako kausak dirauten duten bitartean. Eta, instituzionalizazioaren egunerokotasunean haurrak jarraitzen dute izaten esku hartzearen objektu pasiboak. Instituzionalizazioak haur hauen garapen sozial eta emozionalean arrastoak uzten ditu. Di Ioro-ren (2010) ustez, nahiz eta gaur eguneko haurtzaroaren gainean darabilten diskurtsoek lehengo praktika errepresiborrukitsuek ahaztu nahi dituen, egun, babesteko erabiltzen den asistentzia eta tutoretza hauek, babestu ezik haien eskubideen urraketa suposatzen du.

Funesek ere esaten du babes sistema honek adin txikikoak espedienteak izango balira bezala tratatzen dituela. Haurrentzako denborak garrantzirik ez balu bezala, aldaketek ez balukete eragingo. Abandonutik, maitatuak izatera eta bat batean berriz ere abandonatuak izatera.

4. HAURREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ITUNETAN DISKURTSO PROTEKZIONISTA NAGUSI

Arestian aipatu ditugun egoitzetan barneratzearen egoerek, hau da zentro horietan bizitzeak, agertu daitezkeen eragin negatiboak kontutan hartzen baditugu, adin txikikoek neurri batean babesgabetasun egoera batean daudela antzeman dezakegu, beraz eta ondorioz nolabaiteko eskubideen urraketa argi bat nabari da. Eta eskubideez hitz egiterakoan komenigarria litzateke haurren eskubideen inguruan ezagutzen ditugun hiru Itunez hitz egitea, bederen gain begirada bat botatzea, batetik bestera izan duten garapena ezagutzeko edota ikusarazteko. Hala nola “1924. urteko Ginebrako Deklarazioa”; “1959ko Haurren Eskubideen Deklarazioa” eta “1989ko Haurren Eskubideen Hitzarmena” hurrenez hurren.

Aurreneko deklarazioa bost printzipioetan oinarritutako deklarazio motza izan zen. Elikadura, zaintza, harrera, hezkuntza ... aintzat hartzen zituen, haurtzaroaren eremu guztiak hartzen dituen, zaintza biologikoa, psikologikoa, judiziala eta hezkuntza eremua hain zuzen ere. Zaintza eta babesaren ideian inspiratutakoa, baina ez haurra eskubidedun subjektu bezala (Dávila eta Naya, 2008).

Ondorengoa, 1959koa berriz, pixka bat hobetu eta luzatu zen (10 artikulua). 1948ko Giza eskubideen deklarazio unibertsalean batzen diren printzipioak agertzen dira honetan ere eta beraz, berrikuntza batzuk azalduko dira, hala nola, haurren definizioa, guraso batzuek izateko eskubidea, izen eta nazionalitatearen eskubidea (honek eskubide zibilen onarpenera suposatuko luke, nahiz eta idazleek momentu hartan konturatu ez), eta baita ere, geroztik datorren 1989ko konbentzioan agertuko den ezinbesteko kontzeptua: “haurren interes gorena”. Hala ere, deklarazio honetan

oraindik ere haurra definitzen da: *“ como un ser humano dependiente, no autónomo. Es responsabilidad de los adultos que llegue a ser uno de ellos”*.

Azkeneko eta gaur egun erabiltzen dugun konbentzioa, “1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena” da. Izan ere, lau taldeetan banatu daitezkeen eskubideak azaltzen dira: “haurtzaroaren oinarrizko beharrianak asetzea”; “eskubide zibil eta politikoak bermatzea”; “famiarekin kolaboratu haien eskubide eta obligazioak errespetatzen” eta “zaurgarritasun egoeran dauden eta edozein biolentzia zein esplotaziotik adin txikikoak zaindu eta babestu”.

Nabaritzekoa da urteak igaro ahala hobekuntzak agertu zaizkigula Konbentzioetan, denak garrantzitsuak nola ez, baina azpimarratu nahi nukeena arestian aipatutakoa, azkeneko Konbentzioan eskubide zibil eta politiko onarpena agertzen zaizkigula eta horien barne aipatzekoa autonomia eskubideari dagokiona, haurren eskubideen barnean berezia, eskubide subjektu bezala onartzen dela. Zentzu honetan, eskubide hauek ez dira identitate eta nazionalitatean bakarrik bereiziko, baizik eta, adierazpen askatasunean, pentsamenduan, erlijio eta kontzientzian, haurren iritzian, bizitza pribatuaren babesa, partaidetzan, bere garapen eta gaitasunak kontutan hartzen (Dávila eta Naya, 2008).

Beraz, XX. mende honetan ikus dezakegu haurraz darabilgun diskurtsoa bi eskubide desberdinen defentsan oinarrituta dagoela, bata, oinarrizko beharrianen asetze eta babesari dagokionez eta bestea, haurren autonomia eskubideei dagokiona. Honekin adierazi behar duguna oraindik ere haurrari dagokionez diskurtso edo praktika protekzionista bat darabilgula. Eta aurrerantzean haurren eskubideen onarpenari dagokion paradigma aldatzen dihardugula, teorian eta legegintzan nabaritu dezakeguna baina praktika mailan oraindik ere diskurtso protekzionista gogor irauten duelako, nola nahi ere, menpekotasun eta bazterketa adierazpena delako, gaur egun oraindik ere munduan milaka eta milaka haur pairatzen ari diren egoera, hain zuzen ere.

Funesek, haurrak, nerabeak, babestu behar diren objektutzat hartzen ditugula, baina ez eskubide subjektu aktiboak. “Haien onerako” izango delakoan hitz egiten eta ekiten dihardugu, eta nola ez, helduak garen heinean guk geuk definitzen dugu dena.

4.1. “Haurraren interes gorena” helduen baimenarekin

Bestaldetik, haurren eskubideez eta legeez hitz egiten dugunean guztiz ohikoa izaten da “haurraren interes gorenaz” hitz egitea. Haurren Eskubideen Nazio arteko Konbentzioaren 1.2 artikulua aipatzen du; (Funes, 2008)

“En todas las medidas concernientes a los niños que tomen las instituciones públicas o privadas de bienestar social, los tribunales, las autoridades administrativas o los órganos legislativos, una consideración primordial a que se atenderá será el interés superior del niño”.

“Gorena” hitzak adierazi nahi duena aurretik, lehenago edo lehen postuan kokatzen dela, ez helduen eskubideen kontra doala. Beraz, goreneko eskubideak dira. Eta hau horrela da, helduek horrela izatea aukeratu dutelako.

Eta batzuetan helduek izaten gara eskubideen hautaketa bat egiten dugunok, zeintzuk eskubideak ezarri eta zeintzuk ez.

Haien interes gorenaz hitz egitea ez da doktrinamendua eta dogmatismoa ezartzea. Interesa zaurtu egiten da katekisatzen zaienean pentsatzen ez irakasten, ideiei propioak izaten, edo zalantzan jartzeko seguru sentitzen direnean.

Hala ere, malgutasunaz jokatu bezala, zalantzak agertzen dira nork definitzen duen interes hori. Eskubideen ezarpena helduen menpe dagoen heinean, helduok gara noiz, zelan, eta zertan oinarritzen den erabakitzen dugunok. Nola ekidin tranpak egiteari? Gutxienez, hausnartu beharko genuke norainokoa diren gure interesak eta ez haienak.

Eta oso delikatua da haien bizitzaren proiektuetan gure erabakitzea. Egoitza harrera batera eramatea erabakitzen dugunean edota familiarik banatzea erabakitzen dugunean. Gure imajinatzen duguna, gure proiektatu duguna haientzat ez dela beti onenetarikoa izaten.

Beraz, profesional bezala kontu handiz jokatu behar dugu, zailtasunak eta arazoak daudenean, eta haurren babeserako erabakiak hartu behar direnean, ez da batere erraza izaten eta.

Bestaldetik, eskubideez edo “haurraren interes gorenaz” hitz egiten dugunean, “entzuketara” aipatu behar dugu beste ezaugarrien artean, premiazkoa delako. Helduok

haurren bizitzan baldintzatzen dizkieten erabakiak hartzen ditugunean, haurrek entzuteko eskubidea dute, eta haien iritzia entzuteak haurraren interes gorenara kontuan hartzea litzateke. Heziketa egoki batek oinarrian hartuko luke haurra behatzean, bere sentimenduak deskubritu, eta saiatu ezagutzen zein eragina sortzen duen gure heziketak.

Abandonuak, banaketak, babes neurriak, eta halako kasuetan, eta helduok edota profesionalek erabakiak hartu behar ditugunean, oso beharrezkoa izaten da adin txikikoarekin kontsultatzea, erabaki positiboak hartu behar ditugulako haien onerako eta haien izenean. Egia da, arauak, prozesu administratiboek, adin txikikoaren iritzia kontuan hartzeko beharrezkoa ezartzen dutela baina normalean adin batetik aurrera izaten da, adin txikikoak hitzekin zerbait esateko gaitasuna duenean.

Haatik, entzuna izatearen eskubideak zer sentitzen duten, zer pentsatu, nola bizi diren, komunikatu ahal izateko eskubidea adierazten du. Aldaketa bat gertatzen ari denean, momentu horretan zenbateko eragina sentitzen ari den jakiteko ere balio du, aukera desberdinen artean hautatu beharko du eta profesionalek edota administrazioek laguntza emateko erantzungo dute. Bi premisetan oinarritzen den eskubide bat da:

1. Adin txikikoek zerbait esateko dutela onartzea.
2. "Itzultzaile" lana egingo duten konfiantzazko helduek hurbil izatea, haien mundua eta helduenaren arteko zubia izango direna, helduak izaten baitira eragiten dizkieten erabakiak hartzen dituztenak.

5. PROPOSAMENAK EDOTA IRTENBIDEAK

Hirurogeita hamar urteetan zehar egindako praktika desberdinak eta ikerketek haurrengan instituzionalizazioak sortzen duen kalteak erakutsi izan digute. Beraz, gai honekin arduratuta dauden profesional, arduradun politiko edo bestelako gizabanakook kontutan hartu beharreko proposamenak litzateke hurrengo aurkeztutakoak, instituzioek eskaintzen dituzten harrera sistema hau eraldatzeko helburuarekin, komunitatean eta familian oinarritzen diren zaintzak haurraren

beharrizanei hobeto erantzuten baitie. Beraz, herrialde guztiek neurriak hartu beharko lituzketen haien gurasoekin bizi ezin duten haur hauek babesteko.

Lehenengo eta behin, nik uste dut, sentsibilizazio kanpaina bat egin beharko litzatekeela, bai haurren instituzionalizazio honek dakarren kalteak erakusteko eta kontzientzia pizteko gizabanako, arduradun politiko ... azken finean gizarte osoa kontzientzia arazi. Gainera, haur hauen egoerari buruz, eta egoitza harrerari buruz jendartearen dagoen informazioa oso eskasa dela uste dudalako.

Bestetik, familiak eta komunitateak haurren babeserako eta ongizaterako izan dezakeen garrantzia erakutsi eta horren inguruan kontzientzia piztu beharko genuke baita ere. Eta haien eskutik asko egiteke eta emateko dagoela, instituzionalizazioaren ordezkari izan behar dutela ikusaraztea eta horretan beharrezkoa dena inbertitu.

Birminghaneko Unibertsitatean sortutako “The Institutionalising and Transforming Children’s Services” izeneko gida praktikoa baten bidez, desinstituzionalizazioaren aldeko proposamena aurkezten da. Proposamen hau, praktika egoki batzuetan oinarritzen den egoitza harreretan dauden haurren desinstituzionalizazioa litzateke, Europako zentroetatik zehar hezitzaile profesionalek aurrera eramanez duten praktiketan identifikatutakoak, hain zuzen ere. Praktika hau pausu batzuen jarraipenean datza, hauexek beste batzuen artean:

1. Haurren instituzionalizazioak sortzen duen eragin negatiboari buruzko sentsibilizazioa handitzeko esperientzia praktikoa eta ebidentzia zientifikoan oinarritzen da.
2. Desinstituzionalizazio prozesuan kudeaketarako plan estrategiko baten garapena aurkezten da. Prozesu horretan eman behar diren pausuak, baita prebentziorako zerbitzu eta arauen beharra. Prebentzio terminoetan, haurren abandonua prebenitzeko akzio plan bat aurkezten da.
3. Desinstituzionalizazio egoki baterako beharrezkoak diren aldizkako zerbitzuen diseinua zehazten da.
4. Desinstituzionalizazio egoki baterako beharrezko baliabideen transferentziaren planifikazioa.
5. Desinstituzionalizazioaren aspektu garrantzitsu eta konplexuena litzateke: haurrak joango diren bizi leku berri horretarako prestatzeko eta trasladoa gauzatzeko prozesua. Trasladoak askotan traumatikoak izaten dira eta kapitulu

honetan beharrezko informazioa eta profesionalentzako erreminta egokiak zeintzuk diren azpimarratzen dira, batez ere, haurraren helmuga egokia ziurtatzeko.

6. Estatuko autoritateen ardura litzateke ebaluaketa bat egitea, haurren egokitasunari buruzko jarraipena testuinguru berrian, besteak- beste.

Eraldaketa prozesua gertatzen den bitartean Haurren Eskubideen Konbentzioa oinarri hartzen da, haurren beharrak eta eskubideak errespetatuak eta babestuak direla ziurtatzeko. Praktika eredu hau herri askotan jarri da martxan eta inguru sozio ekonomiko eta politiko desberdinetara egokitzen den eredu da. Horregatik, esku liburu honetan planteatzen den hamar pausuetako eredu, desinstituzionalizazioa eta haurren zerbitzuen eraldaketa aurrera eraman nahi duten herrialdeek beregan hartzeko aukera ematen du.

Nire proposamenen artean adierazi nahi dudana esku hartzea egiten denean haurra bere testuingurutik ez ateratzea litzatekeela. Hau da, haurraren babesgabetasuna normalean gertatzen da gurasoek eta inguruak eragindako faktore desberdinegatik, haurra beraz biktima da, eta biktima bikoitza bihurtuko da, egoitza batera eramaten badugu. Belsky-ren eredu ekologikoa kontutan hartzen badugu, hau da, haurren tratu txarra maila ekologiko desberdinen interakziozko prozesu batean gertatzen bada eta bere inguruneak eta ingurukoek, tratu txarraren genesian era dinamiko batean eta interaktibo batean jarduten badute, non, ingurune horretan eta ingurukoekin baino hobeto arazoa tratatzea? Familian eragiten duten sistema guztiek oreka batean mantentzea lortzen dugunean, lortuko dugu babesa.

Bestetik, haurraren interes gorena kontutan hartu behar badugu, baita eskubideen defentsan tinko mantendu behar bagara, zergatik bada, haurra bere testuingurutik atera? Arazoa gurasoek eragindakoagatik baldin badator, gurasoekin egin beharko da esku hartze sakona, arazoari aurre egiteko. Eta haurra ez da zertan bere etxetik mugitu behar. Etxebizitzak ez badu oinarrizko baldintzak betetzen, horretan ere lagunduak izan beharko lirateke. Gurasoekin egin behar den esku hartzean denbora asko inbertitu, arazoa lehenbailehen edo ahalik eta azkarren konpondu dadin. Beti ere, gurasoek arazoa konpontzea baldin badute eta egoera konpontzeko esfortzua eta

desioa erakusten badute. Bitartean haurrari behar adineko laguntza eskaini, bai eguneko zentroetan, edota hezitzaileekin bere etxebizitzan bizitzeko aukera emango nuke, behar duten babesa eta bestelakoak asetzeko asmoz. Hezitzaileak etxebizitzetan sartzeko aukera horrek inoren bizitza pribatuan eta intimitatea apurtzen duen ekintza dela pentsatzen bagaude, ez gaude haurraren interes gorenean pentsatzen, eta kasu honetan eta denbora tarte horretan haurraren interes gorena da gure lehentasuna. Jaume Funes-ek dio, babesa era egoki batean egiteko irizpide tekniko batzuek kontutan hartu beharko zirela:

- Haurraren erantzun eta beharrianak lehendabizi bere nukleoan eman beharko ziren, familia gunean, non bere bizimodua garatzen den lekua delarik.
- Leku zehatz batean errotzea sortu eta indartu behar da (berea batez bere, oso destruktoorea ez bada), bere babesgabetasun pertsonalaz gain, babesgabetasun soziala ekiditeko, gainera horrela arreta sistema desberdinen ekintzak indartzen dira eta komunitateko baliabideak erabiltzeko aukera emango du.
- Normaltasunezko irizpideak emango die beharrezkoa den arreta. Hau da, arreta emango zaie haurrak diren heinean, ez patologia edota gabezia bat daukatelako. Nahiz eta beharrian desberdinak izan, erantzunak inguru normaletan eta baliabide normalekin eman behar zaie.
- Logika bikoitzarekin ekin behar da. Alde batetik, saiatu behar gara sartuta dauden inguru suntsitzaileak murrizten. Bestetik, indartu behar da elementu babesleak, hau da, haurrak dituzten gaitasun eta baliabideak kontutan hartu eta haien inguruan daudenak ere. Babestu egingo dugu, babesaren faktoreek handitzen, ez testuinguru neutroak sortzen.
- Suposatu behar da eman beharreko erantzunak lurraldean bertan, antolatuta eta planifikatuta egon behar direla, auzoan edo esku hartuko den lekuan. Haurtzaroarekin testuingurutik kanpo dauden ekintzak ekidin behar dira.

Eta azkenik, hezkuntzaz aritzea ezinbestekoa dela uste dut. Izan ere, hezkuntza testuinguruetan dauden arazoei irtenbideak emateko hezkuntza erabiltzea ezinbesteko erreminta dela argi dago. Jolonch-en (2014) ustez, arriskuan dagoen haurtzaroa definitzen hastea baino hobeto legoke hezten arriskatzea, heziketa, arrisku eta prebentzio termino lez ezin dezakegulako hartu. Hezkuntza, garatzeko eta hasteko

posibilitateen artean beti irekita dago, hezkuntza pertsona bakoitzean ezkutatua dagoen pentsa ezinezko edozertarako prest egon behar delako.

Hezkuntza ez da prebentzioa, proiektua baizik. Heziketaren ikuspuntuak, besteek bukatu gabeak, mugimenduan, garapenean egongo balira bezala ikusi behar ditu. Hezten duenak haurraz, gazte, helduaz sinetsi behar du, hezteko haiek dituzten hazi guztiak kontutan hartuz. Ikuspuntu hau beharrezkoa den puntu etikoa litzateke, hau dela eta profesionalaren arrakasta edo porrota gertatuko delako. Besteengana mugitzen gaituen zentzua errekueratu: ikertzailea, ikertzera; hezitzailea, irakaslea, gizarte langilea, haien lana egitera; gazte zein haurra bizitzera eta gizartean leku duin bat izatera. Hau da gure gaian daukagun erronka handia (Jolonch, 2014). Beraz, mende berrirako daukagun erronka, arriskuan dagoen haurtzaroa eta hezkuntzaren arazoari irtenbideak ematea. Hurrengo urteetan, gizabanakook etorkizunaren arduradun izan behar dugu, nahiz eta orain ere ardura hori izan. Egun eraikitzen duguna etorkizuneko belaunaldien eskaintza izango da.

7. ONDORIOAK

Sekula ez dira gaur egun bezain ongi zainduak egon mutiko eta neskatok, eta inoiz baino interes handiagoa dago haurren aurkako tratu txarrak sustraitik erauzteko. Halere, tratu txar horiek eta haurren babesgabetasunak garrantzi handiko arazoa izaten jarraitzen du gure gizartean. Egia esateko, bai Euskal Herrian eta bai gainerako herrialde garatuetan sumatzen denez, azken hamarkada hauetan adin txikikoen gero eta portzentaje handiago batek jasaten ditu tratu txarrak, batzuk susmagaitzak, esaterako utzikeria eta tratu txar psikologikoa (Aisa, E. eta beste, 2000).

Herrialde gehiengoek arreta instituzionala erabili izan dute haurren babeserako. Eta intentzio onarekin egin izan dute gainera, haurrentzako egokiena delakoan. Hala ere, errealitateak erakusten digu komunitatean eta familian oinarritutako zaintzak haurraren eragin positiboagoak dituela, haien beharrianak hobeto asez. Herri batzuetan aurrera eraman den Instituzionalizazio ezaren esperientziak erakutsi digu,

prozesu hau gobernu, familia, komunitate eta haurrengan onuragarria dela (European Commission Daphne Programme, 2007).

Arestian aipatu eta aztertutako guztia kontutan hartzen badugu, atera daitezkeen ondorio garrantzitsuenak:

- Haurrak babesteko edozerk edota edozein metodok ez duela balio, eta babesteko gutxiago. Ezin dugu babestu edozein preziotan. Ezegonkortasunak arindu ez eta aldiz, erreferentzia egonkorrak sustatu. Eta beraz, babestea beharrezkoak ez diren familien apurketak ekiditea da, egokitzen ez duten zentroetan barneratzea ekiditea, Egoitza harrerak ez duelako haurrek behar duten babesa ziurtatzen, beraz ez dela irtenbide egokia adin txikikoentzat, baizik eta proiektu baten barne sartzea, haurrak ikusarazteko etorkizunean bizitza duin bat zain dutela.
- Babes sistema honek akatsak dituela. Akordio politikoak beharrezkoak dira, haurtzaroz luzaro hitz egin, profesionalak errekuperatu, orientabideak elkarbanatu ...
- Hezitzaile gisa bestelako irtenbide eta proposamenak bilatzeko esfortzua egin beharko genukeela. Egoitza harreretan barneratuta izateak dakarren ondorioei buruz gehiago ikertzea. Guztiok inplikatu behar garen gai serioa dagokigu oraingoan, bai administrazioetik hasita eta gureganako edozein gizabanakoraino, bizitzako aldi baten behintzat, haur izan garelako, guraso, hezitzaile edota administrazioarekin zer ikusirik dugulako.
- Eskubideak bermatu gabe geratzen direla egoitzetan barneratuta dauden haurren kasuetan, eskubide zibilen urraketa hain zuzen ere. Haurren interes gorena ... Oinarria eskubideak izan behar dira beti. Haurtzaroz arduratzen gara existitzeko eskubidea dutelako, bizi baldintza duinak izateko, garapen egokia izateko, elkar bizitzeko, zoriontsu izateko e.a. Ez dugu esku hartu behar etorkizunean haur arazotsuak ez daitezen izan edo zailtasunak aurrezteko. Babes eraginkorra, haurrak administrazioei zuzenean eskatu beharko luketen eskubide bat izan beharko zen. Haurrek ezinezkoa dute haien eskubideak erabiltzea ezta haien betekizuna eskatu ere, heldu baten menpe daude beti. Ez gara arduratzen zer pentsatu, sentitzen duten. Inork ez die kasurik egingo bizi

baldintza duin batean bizitzeko eskubidea erreklamatzeko badute, edota heldu batzuen tratua ez dutela soportatzen adierazten badute. Beraz, Estatuak ez zuten Hitzarmena sinatu ondo geratzeko eta ondoren ahaztuta uzteko, baizik eta guztiok aktiboki betearazteko, beti ere, beharrian eta errealitate berriei egokituz.

8. BIBLIOGRAFIA

Aisa, E. eta beste (2000). *Tratu txarrak eta babesik eza umezaroan eta nerabezaroan: arrisku egoeran daudenentzako atentzia*. Bilbo, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila — eta Bizkaiko Foru Aldundia - Gizartekintza Saila.

<http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/Maltrato%20y%20desprotecci%C3%B3n%20en%20la%20adolescencia%20-%20Eusk.pdf> (2014/09/05)

Belsky, J. (1980). Child maltreatment: an ecological integration, *American Psychologist*, 35, 320-335

http://www.researchgate.net/publication/15812067_Child_maltreatment_an_ecological_integration (2014/09/05)

Bizkaia.net. Gizarte Ekintza Saila. Egoitza Harrera (BFA)

http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=1784&idioma=EU&bnemobile=0&dpto_biz=3&codpath_biz=3|236|1784 (2014/09/02)

Bronfenbrenner, U. (1987). *La ecología del desarrollo humano: experimentos en entornos naturales y diseñados*. Barcelona: Paidós.

Dávila, P. eta Naya, L M^a. (2008). El discurso proteccionista sobre los derechos de la infancia en los Tratados Internacionales. *Revista de Educación*, 10, 15-26

Di Iorio, J. (2010) *Infancia e institucionalización: abordaje de problemáticas sociales actuales*. *Pesquisas e Práticas Psicossociais* 4(2), São João del-Rei, 143-149

Funes, J. (2008). *El lugar de la infancia: criterios para ocuparse de los niños y niñas hoy*. Barcelona. Editorial GRAÓ,

Haurbabesa Lanbide Taldea(2008). Gizarte Hezitzaileen Praktika Profesionalaren Testuinguru Instituzionala. *Tantak*, 21, 136-137

Jolonch, A. (2005). *Educació i infància en risc. Acció i reflexió en l'àmbit social*. Barcelona: Pòrtic.

Minuchin, S. (1979). *Familias y terapia familiar*. Barcelona: Ediciones Gedisa.

Mulheir, G.; Browne, K. eta beste (2007). *De-institutionalising and transforming children's services. A guide to good practice*. University of Birmingham.

http://www.crin.org/docs/Deinstitutionaliation_Manual_-_Daphne_Prog_et_al.pdf

(2014/09/02)

Vélaz de Medrano, C. (koord.)(2009). *Educación y Protección de menores en riesgo. Un enfoque comunitario*. Bartzelona: Editorial GRAÓ.